



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2019ko abenduaren 26a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:50

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oriden.

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oriden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieto, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi.

Andoni Torres Fernandez (EAJ) zinegotziak adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2019ko azaroaren 28ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Atxikitzea, egoki bada, administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetza-hitzarmenei.
- 3.- Onartzea, egoki bada, zerbitzu hauen kontzesioa luzatzea: Karela kiroldegia kudeaketa integrala, Arraunetxeren kudeaketa eta beste antzeko zerbitzu batzuen kudeaketa.
- 4.- Onartzea, egoki bada, EH BILDU talde politikoak aurkeztutako ebazpen-proposamena, lan-pentsio-bizitza duinaren aldeko 2020ko urtarrilaren 30eko greba orokorra babesteko.
- 5.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2019KO AZAROAREN 28KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, zirriborroari inork inolako oharrik egiten ez dionez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarrak 2019ko azaroaren 28an egindako ohiko bilkurako akta.

2.- ATXIKITZEA, EGOKI BADA, ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREKIN 2017KO MARTXOAREN 24AN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN 2018KO ABENDUAREN 5EAN SINATU DITUEN LANKIDETZA-HITZARMENEI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ATXIKITZEA administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetzaz-hitzarmenei.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari atxikimendu-agiri hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ZERBITZU HAUEK KONTZESIOA LUZATZEA: KARELA KIROLDEGIAREN KUDEAKETA INTEGRALA, ARRAUNETXEREN KUDEAKETA ETA BESTE ANTZEKO ZERBITZU BATZUEN KUDEAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kirol batzorde informatzaileak 2019ko abenduaren 18an diktaminatutakoa ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Jon Basurko Sarasua (EAJ), Amaia Gozategi Urbietak (EAJ), Jose Javier Gomez de Segura Arce (EAJ) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Anuska Esnal Oliden (EH BILDU), Ainara Munduate Iguaran (EH BILDU), Xabier Ibarguren Azkue (EH BILDU), Beñat Solaberrieta Albizu (EH BILDU), Bakarne Oliden Albeniz (EH BILDU), Bittor Andres Alkorta (EH BILDU) eta Ana Priete Merchan (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA zerbitzu hauen kontzesioa luzatzea: Karela kiroldegia kudeaketa integrala, Arraunetxeren kudeaketa eta beste antzeko zerbitzu batzuen kudeaketa. Kontzesioa bi urtez luzatzen da, BPXPORT XXI, SLU (IFK: B20901716) entitate merkantilaren alde. Udalaren urteko ekarpena orain arteko bera izango da: 200.000 euro. Hori guztia baldintza-agiri administratibo partikularren eta baldintza-agiri teknikoaren arabera. Indarrean geratzen dira, bere osotasunean, Orioko udalbatzarrak 2013ko abenduaren 19ko ezohiko bilkuran erabakitako adjudikazioaren baldintzak.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EH BILDU TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO EBAZPEN-PROPOSAMENA, LAN-PENTSIO-BIZITZA DUINAREN ALDEKO 2020KO URTARRILAREN 30EKO GREBA OROKORRA BABESTEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Ainara Munduate lehen alkateordeak (EH BILDU) hartzen du hitza eta honako testua irakurtzen du:



LAN- PENTSIO-BIZITZA DUINA. URTARRILAK 30 GREBA OROKORRA

Lan-pentsio-bizitza duinaren aldeko greba babesteko ebazpen-proposamena.

ZIOA

Duela sei urte, sindikatu eta eragile sozial ugari herritarren eskubide sozialak biltzen dituen Karta osatu zuten, prozesu parte-hartzaile baten bidez. Orduz geroztik eskubide horien aldeko ekimenak antolatu ditu.

Bestetik, Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bi urte daramatza pentsio duinen alde astero mobilizatzen; bide horretan, pentsioen eremuaz gaindi, modu zabalagoan "planto" egiteko beharra plazaratu dute, euren aldarrietatik harago joateko asmoz.

Orain, aipatu planteamenduaren haritik, mugimendu bien arteko konfluentzia eman da, pentsiodunen eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren artekoa, alegia, lan baldintza, pentsio eta bizitza duinaren aldeko borrokari aurre egiteko.

Konbentzimendu hirukoitz batek batu ditu: batetik, pentsioena denon afera da, oraingo pentsiodunena nahiz etorkizunekoena; bestetik, lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa da; azkenik, eskubide sozialak bermatu behar dira. Finean, bestelako eredu sozio-produktiboa eraiki behar dugu, bizitza erdigunean jartzeko, zaintzari eta planetaren jasangarritasunari lehentasuna emanez.

Ezarriak dituen ardatz nagusiekin bat egiten dugu, alegia: aberastasunaren birbanaketa, sektore publikoaren lidergoa, eskubideen unibertsaltasuna, euskararen normalizazioa, lurraldeen arteko oreka, jendartearen beharren arabera antolakuntza (lehen sektorea, azpiegiturak, merkantzien eta garraio sektorea...).

Horregatik, Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen Aldarrikapen Taularekin bat eginez, ondorengo ebazpen proposamena aurkezten dugu.

EBAZPEN PROPOSAMENA

Horiek horrela, Gure erakundeak

1.- Lan- pentsio- eta bizitza duinaren aldeko grebari bere atxikimendua adierazi nahi die.

2.- Lan- pentsio- eta bizitza duinaren aldeko greba egin ahal izateko erraztasunak eskainiko dizkie Erakundeko langileei.



3.- Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen Aldarrikapen Taularekin bat egiten du, eta horregatik

3.1. Madrilen osatuko den Gobernuari eskatzen dio

- 2011 eta 2013ko erreformetan onetsitako pentsio-murrizketak indargabetzea.*
- Zapateroren eta Raxoiren lan-erreformak bertan behera uztea.*
- Presazko izaeraz Seguritate Sozialaren eta Enplegurako Politika Pasiboen gaineko eskumenak transferi ditzala.*

3.2. Gasteizeko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die

- 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeko neurriak presazko izaeraz ezar ditzatela.*
- Hileko 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzeko neurriak abiatu ditzatela.*
- Hitzarmen kolektiboetan ultraktibitate mugagabea eta herrialdeko hitzarmenen aplikazioa estatu mailako hitzarmenen gainetik lehenetsiak izan daitezen sustapen lana burutu dezatela.*
- Lanera bizirik itzultzeko eskubidea bermatzea.*
- Lan Ikuskaritzako plantillak handitzea, Europar Batasunekoekin parekatu arte, eta lan-istripuen eta laneko gaixotasunen aurkako ekintza planak abiatzea.*
- Lan-harremanetarako eta babes-sozialerako esparru propioaren aldeko neurriak abiatzea.*

3.3. Erkidego eta Lurraldeko Gobernuari eskatzen die

- Gizon eta emakumeen arteko soldata-arrakala eta pentsio-arrakala amaitzeko neurri zehatzak aktibatu ditzatela.*
- Enplegu egonkorra sustatzea eta kontratazioan ematen den iruzurra zigortzea.*
- Soldata gutxitu gabe lanaldia 35 ordura jaisteko neurriak abiatzea.*
- Bereziki emakumei ezartzen zaizkien lanaldi partzial inposatuak ezabatzea.*



- *Zerbitzu publikoak garatzea, ezarritako murrizketak atzera botatzearekin batera.*
- *Kontratazioan sexuaren, jatorriaren, ideologiaren, sexu-identitatearen, aniztasun funtzionalaren edo ekonomia-jardueraren arabera diskriminaziorik egingo ez dela bermatzea.*
- *Klausula sozialak ezartzea administrazio-ko kontratazio guztietan.*

4.- Gure Erakundearen adostutako ebazpen hau Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari, Lurraldeko Gobernuari eta Euskal Herriko Karta Sozialari helaraziko zaie.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio-botoa emango duela. Esaten du gai garrantzitsua dela eta, horrexegatik, beharrezkoa dela lantzea eta udalbatza osatzen duten talde politiko guztien artean adostea.

Xabier Ibarguren zinegotziak hartzen du hitza, EH BILDUren izenean, eta adierazten du aipatutako ebazpen-proposamena joan den abenduaren 20an bidali zitzaiela udaleko zinegotziei; hau da, 150 orduko aurrerapenarekin. Beraz, formalki ez dago inolako aitzakiarik eta, gai garrantzitsu baten aurrean gaudenez —lana, pentsioa eta bizitza duina—, bere talde politikoaren ustez, babesa eman behar zaie, besteak beste, astero pentsio duinen alde mobilizatzen ari diren Orioko erretirodunei.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du udalbatzarraren hurrengo ohiko bilkura 2020ko urtarrilaren 30ean tokatzen dela, greba orokorrerako deialdia egin den egunean. Horregatik aurkeztu du bere talde politikoak ebazpen-proposamena udalbatzar honetan, ez duelako asmorik udalbatzarraren ezohiko bilkurarako deialdirik egiteko datorren hilean, kontuan hartuta, besteak beste, horrek diru-gastua sortzen duela zinegotzien diru-esleipenak direla-eta.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, ORAIN taldearen izenean, eta adierazten du ezezko botoa emango duela, aipatutako ebazpen-proposamena ez delako alde aurretik eztabaidatu eta adostu berariazko batzorde batean edo Bozeramaileen Batzordean, bere talde politikoak beti eskatu izan duen bezala.

Azkenik, Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, PSE-EE-PSOEn izenean, eta adierazten du oso gai garrantzitsu baten aurrean gaudela, eta babesa eman behar zaiola pentsio duinen alde datorren urtarrilaren 30erako deitutako greba orokorrari; esaten du, beraz, aldeko botoa emango diola EH BILDU talde politikoak gaur egungo eta biharko pentsioak hobetzearen alde aurkeztutako ebazpen-proposamenari.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Anuska Esnal Oriden (EH BILDU), Ainara Munduate Iguaran (EH BILDU),



ORIOKOUNDALA

Euskaraz
bizi-bizi

Xabier Ibarguren Azkue (EH BILDU), Beñat Solaberrieta Albizu (EH BILDU), Bakarne Oliden Albeniz (EH BILDU), Bittor Andres Alkorta (EH BILDU) eta Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Jon Basurko Sarasua (EAJ), Amaia Gozategi Urbietta (EAJ) eta Jose Javier Gomez de Segura Arce (EAJ); guztira **LAU ABSTENTZIO**. Kontrako botoak: Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN); guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

ONARTZEA EH BILDU talde politikoak aurkeztutako ebazpen-proposamena, lan-pentsio-bizitza duinaren aldeko 2020ko urtarrilaren 30eko greba orokorra babesteko, goian jasota dagoen bezalaxe.

5.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei, urte berri ona opa die eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,